

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Batez ere interneta-ren bidez lan egiten dugunez ez dugu erlazio asko izango kontsumitzaileekin. Hala ere, zerbitzu batzuk eskainiko dugu gure web orrialdearen bidez, hau da, zerbitzu laguntzak. Gure web orrialdean gure telefonoa eta posta elektronikoa agertzen dira. Edozein arazo izatekotan gurekin kontaktuan jarri ahal dira (Astelehenetik-Ostiralera 9:00-tik 14:00-ra eta 16:00-tik 19:00-ra).

Gurekin sare sozialen bidez hitz egin ahal dute. Ez dugu gure informazioa hor bakarrik jarriko, zozketak egingo ditugu ere hor. Horrela jendea adi egongo da zozketa irabazteko, eta modu honetan bezero gehiago erakarri ahal ditugu.



Idea nagusia kontsumitzaileen arreta erakartzea da eta bost eskumutur eskuratzeko aukera izango dute aurkezten direnak (eskumuturreko bat pertsona bakoitzeko). Eskumuturrekoak saltzeko, bai online dendaren bidez

bai denda fisiko baten bidez eskainiko diegu gure produktua kontsumitzaileei. Online dendari dagokionez, gure web orriaren bidez eta zenbait iragarkien bidez erabaki dugu gure produktua saltzea. Bezeroekin harremanetan jartzeko, e-mail, zein sare sozialen bidez egingo dugu. Denda fisikoari dagokionez, hasteko, denda txiki bat alokatu nahi dugu Bilbon.

Gure produktua bezeroei hurbiltzeko, zenbait enprekin hitz egingo dugu gure produktuari buruzko iragarkiak haien web orrietan erakusteko. Gure lehen idea da Elhuyar hiztegiaren web orrialdean gure produktuari buruzko informazioa

eskaintzea. Dakigunez, guztiok erabiltzen dugu hiztegia egunero edo ia egunero, eta hemen, Euskal Herrian, Elhuyar da ohikoena. Bilatu dugun informazioaren arabera Euskal Herrian “diccionario” hitza gehien bilatzen bigarren Autonomia-Erkidegoa da. Beraz, jende asko sartzen denez hiztegieta, gure iragarkia ikusiko dute. Aurrez aurre aipatu dugun bezala, Elhuyar hiztegiarekin akordio batera iritsi nahi dugu, non gure iragarkian klikatzean gure web orrialdera agertuko den.